



euskalmendizalefederazioa

EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA

Ohiko Batzar Orokorra

Eguna: 2017ko azaroak 11, larunbata

Ordua: lehen deialdia 10:00etan, eta bigarrena, 10:15ean.

Lekua: Elgoibar, Makina Erremintaren Institutua

2017ko azaroaren 11n, larunbatean, 10:25ean hasi da EMFren Ohiko Batzar Orokorra, Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuan.

Honako hauek zuzendu dute batzarra: José Ramón Alonso lehendakariak, Leire Salazar lehendakariordeak, José Antonio Arriola diruzainak, Vicente López idazkariak, eta Alberto Montoya eta David Alday batzordekideek.

Parte-hartzaileak:

Zerrenda atxikita doa. Parte hartu dutenek, EMFren batzarreko 38 kidek, batzarreko kideen % 20,21 ordezkatzeko dute.

Aztergai hauek izan dira, GAI-ZERRENDAREN arabera:

1. Aurreko aktak onartzea, hala badagokio
2. Zuzendaritza Batzordeko idazkaria berrestea
3. 2018ko federazio-lizentzien prezioetarako proposamena eta onarpena, hala badagokio
4. 2018ko aurrekontuaren onarpena, hala badagokio
5. Jardueren egutegia
6. Lehendakaritzaren txostena
7. Galderak eta eskariak

1. Aurreko aktak (ohiko eta ezohiko batzarrei dagozkienak) onartzea, hala badagokio.

Idazkariak batzarrean parte hartu dutenen kopurua eta dagokion boto kopurua begiratu ditu: 64 boto, 34 klubekoak eta kirolarien 4 ordezkariak

– BMFko kirolaria

BMFren lehendakariak hartu du hitza, eta galdetu du zergatik eskatu zaien klubetako ordezkariari egiaztapen-agiria, ordezkari horren izena EMFk erabiltzen duen plataforman ageri den arduradunen izenarekin bat ez datorren kasuan. Lehendakaritzaren mahaiak gogorarazi dio, BMFk legealdiaren hasieran bidali zuela klubak eta ordezkarien zerrenda (lau urteko eperako, 2017-2020), baina beste bi lurralde-federazioek, AMFk eta GMFk, ez zutela bidali, eta, beraz, egiaztapena eskatzen jarraituko dela, gutxienez bi lurralde-federazio horien kasuan.

Idazkariak jakinarazi du aktak aurrez bidali dituztela, eta ez dagoela irakurri beharrik. Horien onarpena bozkatu aurretik, esku-hartze batzuk izan dira.

– BMFren lehendakaria

Ez dago ados Helvetiaren hitzarmen berriaren banaketarekin, apirilaren 8ko batzarreko aktan jasota dagoenarekin. Hark ulertutakoaren arabera, kopuru osoaren % 50 EMFri esleituko zitzaion, eta beste zatia, % 50, lurralde bakoitzeko proiektuetarako izango zen.

✓ *EMFren lehendakariordea*

Ez da gauza bera esaten denarekin ados ez egotea eta aktan esan zenaz islatzen denarekin ados ez egotea. Gainera, gogorarazi dio ez zuela parte hartu batzar hartan, eta bigarren % 50 hori hiru lurraldeetako proiektu komun baterako zela.

– Besaide kluba

Aktan, 4. puntuan, Jardueren egutegian, honako hau dago jasota: “Besaideko ordezkariak hitza hartu du, eta bilera bat egitea eskatu du; monolitoa nahiz inguruak berri beharra dagoela esan du”; ez zen itxura fisikoaz soilik hitz egiten ari, Oroipen Egunaz ere ari zen, egun horretako espiritua eta hura antolatzen duten hiru klubuen arteko harremana indartzeko.

Gehiengoz onartu dira 2017ko apirilaren 8ko Ohiko eta Ezohiko Batzarretako Aktak, Besaide klubeko ordezkariak egin duen oharraren ondoren egindako aldaketa barnean hartuta.

BOZKETA: BAI: 37 EZ: 7 Abstentzioa: 22

2. Zuzendaritza Batzordeko idazkari berria berrestea

Lehendakariak idazkari berria aurkeztu du, Vicente López jauna, arrazoi pertsonalengatik kargua utzi zuen aurreko idazkaria ordeztuko duena.

3. 2018ko federazio-lizentzien prezioetarako proposamena eta onarpena, hala badagokio

Seguruaren txostena komentatu du lehendakariak.

– San Ignacio kluba

Klubeko jardueretan hiriguneak ukitzen dituzten Mendi Lasterketetako aseguruaren estaldurari buruz galdetu du.

✓ *EMFren lehendakaria*

Estalduta izateko, klubek jardueren egutegia bidali behar diote Broker's etxeari.

– San Ignacio kluba

Hiru urte hauetan, Quirón izan da itundutako klinika, eta, mendizaleek diotenez, ez du arreta ona eskaintzen. Quirón zentro bakarra ez izatea aztertuko da berriro?

✓ *EMFren lehendakaria*

Badu Araban izan diren kexen berri, eta kontsultatu du, baina zentroak bera izan behar du hiru lurraldeetan.

– Batzarreko hainbat kide

Galdetu dute ea baliaezintasun partzialaren baremoa berdina izango den guztientzat, edo soilik lehiakideentzat den.

Guztientzat berdina izan behar lukeela uste dute.

✓ *EMFren lehendakaria*

Kontsultatuko da, erantzuna emateko.

– Gailurra kluba

Uste du batzuetan ez dela posible 72 orduko epean parte ematea, unean bertan ez baita jakiten lesioa ote den; baina, irauten badu, parte eman behar da, eta dagoeneko epe hori pasatu da.

✓ *EMFren lehendakaria*

Hobe da epe horren barruan deitzea, baita lesioari buruzko zalantzak izanda ere, ez baitute nahi 72 orduko epe hori malgutzerik.

– Gailurra kluba

BTTren estaldura berraztertzeke eskatu du, hiritik irtendako kasuetarako, ez bakarrik klubeko jardueretan; eta Ibilketa Nordikoarenarekin konparatu du estaldura.

✓ *EMFren lehendakaria eta lehendakariordea*

Gai hori landu da Broker's etxearekin, eta pikarokeria saihesten saiatzen direla aipatu dute; zuzenean Broker's etxeari azaltzeko gonbita egin diote.

– GMFren lehendakaria

Gipuzkoako Orientazio Taldeak (GOT) egoera bera du, hiriguneko estaldurari dagokionez.

– Besaide kluba

Erantzun serioago bat eskatu dio Broker's etxeari.

– Zuia kluba

Araban, Quirón ospitaleak ez du ondo funtzionatzen, eta arreta eta errehabilitazioa ezin txarragoak diela helarazteke eskatu du.

– Batzarreko kide bat

Mendira joan eta eski-estazio bateko pista zeharkatzen baduzu, seguruaren estaldurarik baduzu?

– Gailurra kluba

Literalki, izango zenuke estaldura.

EMFren Zuzendaritza Batzordeak egin diren galdera eta kexa guztiak biltzen dituen idatzi bat Broker's etxearen bidez Helvetiari bidaltzea onartu da.

Aho batez onartu dira 2018ko lizentzien prezioak.

4. 2018ko aurrekontuaren onarpena, hala badagokio

Idazkariak dokumentazio ekonomikoa, 2018ko aurrekontua eta 2017KO PROPOSAMENA, 2017KO ITXIERAREN AURREIKUSPENA ETA 2018KO PROPOSAMENA islatzen dituen dokumentua azaldu ditu.

2017ko itxierarekin lotutako azalpena irakurri du, alde handienak izan ditzaketen partidak zehaztuz.

– Besaide kluba

Oroipen Egunera zuzendutako partidari dagokionez, monolitoan edota inguruetan lanik egingo den galdetu du.

✓ *EMFren lehendakaria*

Hiru aurrekontu eskatu dira monumentua eta inguruak hobetzeko, eta egingo diren jarduketak batzuen berri eman du.

- Goigain kluba
Eskerrak eman ditu bidalitako dokumentazioagatik, eta eskatu du beti horrela bidaltzeko, hau da, itxieraren aurreikuspenarekin.
- ✓ *EMFren lehendakariordea*
Irailera arte zain egon ziren bidaltzeko, datu gehiago izateko.
Hasiera batean, horiek aurkezteko eta onartzeko Zuzendaritza Batzordean aurkezteko epeak eta ondoren batzarreko deialdia egiteko epeak kontuan hartuta, 2017ko itxieraren aurreikuspen bat egin zen abuztuaren 31ko datarekin eta gainerakoa estrapolatuta; datu horiek urriaren bigarren hamabostaldian eguneratu ziren, jada balio errealak baitzituzten irailaren 30eko datarekin.
- Gailurra kluba
Lizentzien diru-sarreraren eta gastuen atalean, EMFri dagokiona eta aseguruari dagokiona bereiztea eskatu du, argi gera dadin.
- San Ignacio kluba
Gainera, horrela, aseguru-etxeak "pikarokeria" baino zerbait gehiago erantzungo luke; zuzenean ematen diogun diruan oinarrituta erantzungo luke.
- BMFren lehendakaria
Haren iritzi, aurrekontua gehiago aztertu beharko litzateke Zuzendaritza Batzordean.
- ✓ *EMFren Zuzendaritza Batzordea*
Aztertzen da, baina zaila da egitea, batzordean parte hartzen ez baduzu.
- BMFren lehendakaria
Segurtasunaren gaiari dagokionez, ez du ulertzen zer egin den.
- ✓ *EMFren lehendakaria*
Apirileko batzarrean aztertu zen, eta, bertan, Eusko Jaurlaritzako Larrialdien Sailak berriro lankidetzahitzarmen bat sinatzea proposatu nahi zuela jakinarazi zen; ez genuen iraila baino lehen proposamen hori jasotzerik espero, eta, azkenean, 2018ko urtarrilaren 1eko datan sinatzea espero da.
- Batzarreko kide bat
Ariturekin amaitu bada, zer gertatzen da lizentziekin?
- ✓ *EMFren lehendakaria*
Lehendakaritzaren txostenaren atalean eman behar zen horren berri; dena den, azaldu du uztailean, haiekin telefonoz hitz egin ondoren, data horretan ez zela azken aldaketetatik bat bera ere abian jarri jakin zutela. Bileran bat egitea eskatu zen, eta irailaren 11n egin zen: bilera horretan, Arituk onartu zuen ez zuela ezer eginda, eta hitzarmenarekin aurrera ez jarraitzeko gomendatu zuten. Kontratua deuseztatzea erabaki zen, eta kobratutako zenbateko guztiak itzuli zituzten haiek.
Lizentzien prozesuak berdin jarraituko du.
Webgunea berrituko da, eta jarduera gehiago bilduko ditu.
- Batzarreko kide bat
Hori aurrekontuan dago?
- ✓ *EMFren lehendakariordea*
Itxieraren aurreikuspenean dago

- Batzarreko kide batzuk
Lizentzien aplikazioarekin lotuta, hainbat galdera egin dituzte: EMFrena den, softwarea gurea den, aplikazioa desberdina izango den, eta datu-basea Aritun duten eta dagoeneko mantentze-lanak ordaindu dituzten klubak kontuan hartuko diren.
- ✓ *Zuzendaritza Batzordeko mahaia*
Lizentzien aplikazioa EMFren jabetzakoa dela jakinarazi da, webgunean egongo dela, baina hobetuta, eta datu-baseen mantentze-lana dagoeneko ordainduta duten klubetara hartu dela.
- BMFren lehendakaria
Aurrekontuak denbora gehiagorekin eztabaidatzea eskatu du, eta baita itxiera aurrekontuarekin batera aurkeztea ere.
- ✓ *EMFren lehendakariordea*
Ez da posible, Eusko Jaurlaritzaren baldintzak bete ahal izateko egiten baita horrela.
- ✓ *EMFren idazkaria*
Batera egiten bada, ez dago ezer aldatzeko aukerarik.
- Baskonia kluba
2018ko aurrekontua 2017ko aurrekontuaren arabera edota 2017ko itxieraren arabera egin den galdetu du.
- ✓ *EMFren lehendakariordea*
Biak hartu dira kontuan.

Gehiengoz onartu da 2018ko aurrekontua

BOZKETA: BAI: 56 EZ: 8 Abstentzioa: 2

5. 2018ko jardueren egutegia

Gaur eguneko datan egiaztatuta dauden jarduerak aurkeztu dira, bereziki eskiko probak, eta Eskiko Zeharkaldia berreskuratzeko ahalegina egin dela azpimarratu da. Horrez gain, Boulder Ligari babes eman zaio, aurreko urtean, parte-hartzaileei dagokionez, izan zuen arrakastarengatik, eta eskaladako eta Boulderreko txapelketak antolatzen saiatuko da zuzendaritza teknikoa. Beteranoen Martxarako, Juventus klubaren proposamen bat jaso da, bai eta Haurren Martxarako Itxinape klubak egin duen beste proposamen bat ere; azkenik, jakinarazi da 2018ko Mendizaletasunaren Gala otsailaren 16an egingo dela Gasteizen, San Ignacio Basotxo klubaren ardurapean, eta beste klub batekin ere negoziatioetan ari direla 2018ko Gala antolatzeko.

Eskerrak eman zaizkie guztiei EMFren jardueren antolamenduan eskainitako laguntzagatik.

- Gazteiz kluba
EMFn zenbat klub dauden galdetu du.
- ✓ *EMFren lehendakariordea*
256 klub.
- Gailurra kluba
Gai-zerrenda honetako puntu honi ez badagokio ere, polizan akats bat dago, 7. orrialdean: bidaiako laguntzaren estalduran, 72 € ageri da, eta 720 € izan behar luke.

6. Lehendakartzaren txostena

- Lurralde-federazioetako lehendakariak Zuzendaritza Batzordeko bileretan duten parte hartzeari buruz hitz egin da. Horren ondorioz, bileretan aztertzen den informazioa ez da klubetara iristen, eta klubek, aldi berean, ezin diete ondoren federatuei helarazi. Adibide gisa, Ehun Mendietako historialen berrazterketan klubek izan duten parte-hartze txikia aipatu da.
- Aritu: aztertu da jada.
- Udalekuak: bi aukera proposatu ziren; izandako parte-hartzea eta inkesta bidez parte-hartzaileek adierazi duten gogobetetasuna aipatu dira.
- Besaide: gauzatu diren jarduerak gogoratu dira (etorkizunean egingo direnak aipatu dira jada).
- EMFren diru-laguntzak: datorren astean argitaratuko dira, eta aldaketak gertatuko direla jakinarazi da, batez ere, 2018. urteari begira (besteak beste, gogorarazi da ezinbestekoa dela Jardueren Egutegia lurralde-federazioari eta aseguruari aurkeztea –bai eta ondoren gerta daitezkeen aldaketak ere, behar bezala arrazoituta–, eskaera egiten duten klubei eskatuko zaien betekizuna baita; Oroipen Eguna errespetatu beharko da, klub bakoitzaren jardueretan, eta EMFren logoak agertu behar du jarduera horietan).

7. Galderak eta eskariak

- BMFren lehendakaria
Udalekuei dagokionez, bat-batean egin ziren, eta ez ziren kontuan hartu lurralde-federazioak. Zuzendaritza Batzordeko bilerekin dagokienez, batzuetara ezin izan du joan. Haren iritziz, talde izaerarekin funtzionatu behar da.
 - Batzarreko kide bat
Monitoreak eta abar profesional bihurtzeko lege-proiektuaz badakigu ezer?
 - BMFren lehendakaria
Eskatzen den titulua ez da arautuko; elkarten bidez egingo da, eta horiek homologatuko dituzte jada lanean ari diren enak.
 - GMFren lehendakaria
Maiatzaren 18an GMFk egin zuen batzarrean, Aralarreko pistei buruzko adierazpenerako testua onartu zen, erakundeei eskaera egiteko. Hiru lurralde-federazioek onartu dute, eta EMFk onartzea falta da, eta presazkoa da.
- ✓ *EMFren batzordekidea, D.A.*
Batzordea bilduko da, Zuzendaritza Batzordean onartzeko.

12:45ean amaitu da batzarra.



Sinadura: EMFren idazkaria
VICENTE LÓPEZ



EMFren lehendakariak ontzat emana
JOSÉ RAMÓN ALONSO

EMF-REN OHIKO BATZAR OROKORREAN PARTE HARTU DUTENAK

2017ko azaroak 11 – Elgoibar

KLUBAK

15.01.003	GAZTEIZ M. T.	ARABA
15.01.011	SAN IGNACIO KLUBA	ARABA
15.01.026	ZUIA M. T. "ATZABAL" ELKARTEA	ARABA
15.01.102	AMURRIO TRAILRUNNING M. K.	ARABA
15.20.001	ALPINO UZTURRE ELKARTEA	GIPUZKOA
15.20.004	GORLA A. T.	GIPUZKOA
15.20.011	JAIZKIBEL M. T.	GIPUZKOA
15.20.012	POL POL M. T.	GIPUZKOA
15.20.014	ANTIGUOKO MENDIZALEEN ELKARTEA	GIPUZKOA
15.20.024	AIZKARDI M. E.	GIPUZKOA
15.20.026	BESAIDE M. E.	GIPUZKOA
15.20.031	MORKAIKO M. E.	GIPUZKOA
15.20.032	PAGOETA M. E.	GIPUZKOA
15.20.054	GOIERRI K. E.	GIPUZKOA
15.20.059	ARALARKO ADISKIDEAK	GIPUZKOA
15.48.005	DEUSTUKO MENDITARRAK	BIZKAIA
15.48.009	ARROLETZA M. T.	BIZKAIA
15.48.010	ARTIBAI M. T.	BIZKAIA
15.48.011	BASKONIA M. T.	BIZKAIA
15.48.013	ERDELLA MENDIZALE TALDEA	BIZKAIA

15.48.016	GANZABAL Mendi Taldea	BIZKAIA
15.48.017	GOIKO MENDI M. T.	BIZKAIA
15.48.022	ALPINO TABIRA MENDIZALE TALDEA	BIZKAIA
15.48.023	TURISTA BARAKALDO	BIZKAIA
15.48.026	GANERANTZ M. T.	BIZKAIA
15.48.029	JUVENTUS K.E.	BIZKAIA
15.48.039	ENKARTERRI M. E.	BIZKAIA
15.48.042	GOIGAIN M. T.	BIZKAIA
15.48.054	EGUNSENTIA M. T.	BIZKAIA
15.48.066	GAILURRA M. T.	BIZKAIA
15.48.074	SOLLUBE 707 BERMEO M. T.	BIZKAIA
15.48.075	MUNARRIKOLANDA	BIZKAIA
15.48.215	UNTZA M. T.	BIZKAIA

KIROLARIAK

ALONSO RODRIGO, JOSE RAMÓN	BIZKAIA
APARICIO ARRONATEGUI, AINARA	BIZKAIA
UNDURRAGA BIDASOLO, JOSEBA	BIZKAIA
VIVAR MORENO, VICTOR MANUEL	BIZKAIA